



Lehiaren Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca de la Competencia

Estrategia Plana 2018-2022

Edukien aurkibidea

1

Zer da lehia?

- Definizioa

3.or.

2

Zeintzuk dira onuradunak?

- Kontsumitzaileak, enpresak eta elkarte profesionalak

4.or.

3

Lehiaren defentsa Euskadin

- Arau nagusiak

5. or.

4

Lehiaren Euskal Agintaritza

- 1/2012 Legearen arabera

6.or.

5

Estrategia Plana 2018-2022

- Arrazoiak eta edukiak

7. or.

6

Misioa eta ikuspena

- Enuntziatua

8.or.

7

Helburu estrategikoak

- Definizioak eta arrazoiak

9.or.

8

Estrategia ildoak

- Helburuen araberako sailkapena

10. or.

9

Ekintza Plana

- Ekintzak zehatz-mehatz helburu eta lerroka

11-14. orr.

10

Gobernantza

- Tresnak

15. or.

- Eragile ekonomikoek (enpresak eta kontsumitzaileak) **askatasun eraginkorra** duten egoera lehia da. Askatasun hori izan daiteke ondasun eta zerbitzuak eskaintzeko edota horiek noren eskutik eta zein baldintzatan eskuratzen diren hautatzeko.
- Merkatuen funtzionamendu eraginkor eta lehiakorra **merkatu ekonomiaren oinarrizko printzipioa** da, eta gainera nahitaezko baldintza da ekonomia horrek gizarteari hazkuntza, enplegu eta ongizateren goreneko maila eman diezaion. Onura horiek lortzea –beti beharrezkoa– guztiz kritikoa eta lehentasunezkoa da egungo ekonomia abagunean.
- Hala ere, argi dago **legeak debekatutako lehiakortasunaren kontrako jarrera batzuek** –jarrera kolusoriak, jarrera menperatzailearen abusua eta leialtasunaren kontrako ekintzen bidez lehia askea faltsutzea, besteak beste– eragina dutela interes publikoan.
- Hori dela eta, herrialde garatu guztietan, beharrezkoa da merkatuan **lehiaren agente trebatu, garden eta sineskorrak** egotea honako funtzioak bete ditzaten independentziaz eta zorrotasunez: aholkularitza, ikuskaritza, esku-hartzea eta disuasioa. Jarduketa horrek onurak ekartzen dizkie kontsumitzaileei, enpresei eta administrazio publikoari berari.

<i>Onuraduna</i>	<i>Onurak</i>
Erosleak eta kontsumitzaileak	<ul style="list-style-type: none">• Produktu eta zerbitzu eskaintza zabalagoa, kalitate handiagokoa eta merkeagoa.• Zerbitzu eta produktu berriak (edo daudenen barietate berriak), beraz, kontsumitzaileen beharrianak hobeto asetzen dira eta prezio merkeagoak dira.• Pobrezia murriztea eta diru sarrera eskasak dituzten familiei oinarrizko produktu eta zerbitzuak (energia, garraioa edo etxebizitza) eskuragarriago eskaintzea
Enpresak	<ul style="list-style-type: none">• Pizgarriak enpresei lehiakideak baino eraginkorragoak izatea, kostuak murriztu eta produktibitatea handitzea, hobekuntza inbertsio eta proiektuen bidez, besteak beste. Kostuen aurrezkiak kontsumitzaileen onurarakoak dira.• Pizgarria da berrikuntzari eutsi eta produktu eta zerbitzu berriak (edo egun dauden produktu eta zerbitzuen barietate berriak) eskaintzea, kontsumitzaileen beharrian aldakorrei hobeto erantzute aldera.• Tokiko merkatuetan lehengaiak (garraioa, energia, telekomunikazioak eta finantza zerbitzuak) prezio lehiakorretan erostea.• Hezteko eta merkatu kuota irabazteko aukera eskaintzea, bezero berriak erakarriz.• Enpresa ez eraginkorrek eta berritzaileak merkatutik kanpo geratzen dira, eta enpresa eraginkor, dinamiko, berritzaile eta lehiakor berriak erakartzen dira, merkatura sartzeko muga artifizialik ez baitago.
Administrazio publikoa	<ul style="list-style-type: none">• Kalitate handiagoko artikulu eta zerbitzu merkeagoak erostea.• Herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuak hobeak izatea.• Baliabide publikoen kudeaketa hobe.• Errazagoa merkatuetara sartzea• Herrialde edo eskualde bateko produktibitate, lehiakortasun, esportatzeko gaitasun, ekonomia hazkunde eta garapen iraunkor hobe.• Lehiakortasuna eta ekonomia garapena sustatzeko administrazio publikoaren bestelako politika edo neurriak ez dira hain beharrezkoak.

Arau nagusiak

Espainiako Konstituzioaren 38. artikulua
 1978.eko abenduak 29

Enpresa-askatasuna aitortzen da, merkatu ekonomiaren eremuan, eta, era berean, xedatzen du botere publikoek bermatu eta babesten dituztela lehia-askatasuna gauzatzea eta produktibitatea defendatzea, betiere ekonomia orokorraren eta, hala behar duenean, plangintzaren eskakizunei kasu eginez.

1/2002 Legea, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzekoa.
 2002.eko otsailak 21

Lehiaren Defentsari buruzko uztailearen 17ko 16/1989 Legean ezarritako eskumen betearazleetatik Estatuari eta autonomia erkidegoei dagozkienak zehazten eta mugatzen dira. Horrez gainera, lehiaren defentsaren arloko eskumenak dituzten autonomia erkidegoetan lehiaren defentsarako organoak sortzea aurreikusi zen.

1/2012 Legea, Lehiaren Euskal Agintaritza sortzekoa.
 2012ko otsailaren 2


Erakunde euskarri sendoa emango zitzaion Lehiaren Euskal Agintaritzari hainbat eginkizun bete zitzaion, lehia sustatu eta defendatzearen arloan.

15/2007 Legea, lehia defendatzekoa.
 2007ko uztaileak 3

Lehiaren defentsari buruzko sistema eraberritu eta hobetzen da, Europar Batasuneko eredura egokitzen da, eta koordinazioko baliabideak sendotzen da, autonomia erkidegoetako organo eskudunek nahiz sektoreetako arautzaileek aplikatu dezaten araudia.

16/1989 Legea, lehia defendatzekoa.
 2017ko uztaileak 17

Indargabetzea



Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 119. art.
 1987ko ekainak 12

Ezartzen du estatu kideek indarrean jarri behar dutela merkatu ekonomia irekiaren eta lehia askearen printzipioa errespetatuz aplikatuko den ekonomia politika.

Konstituzio Auzitegiaren epaia
 1999ko azaroak 11

Epaia jarraiki, barruko merkataritzaren arloan eskumena duten autonomia erkidegoei dagokie – Euskal Autonomia Erkidegoa kasu – lehia askearen inguruko gaietan eskua hartu, baimenak eman eta zehapenak ezartzearen eginkizun betearazleak betetzea, baldin eta jardunbideak erkidegoaren barruan egiten badira edo autonomia erkidegoaren lurralde eremutik kanpo hedatzen ez badira.

81/2005 Dekretua aldatzeko 36/2008 Dekretua
 2008ko martxoak 4

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eginkizunak ezartzea arautzen du.

Aldaketa

81/2005 Dekretua, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eginkizunak ezartzea arautzekoa.
 asteartea, 2005.eko apirilak 12

- **Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA/AVC)** buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen arabera:
 1. Lehiaren Euskal Agintaritza Administrazioako **erakunde autonomoa** da, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia, eta **berezko nortasun juridikoa** eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu bere eginkizunak betetzeko sortua.
 2. **Erakunde eta funtzio autonomia izango du**, dituen eginkizunak betetzeko.
 3. Zuzenbide publikoaren mende jarriko du bere jarduera, eta **1/2012 legeak**, administrazio publikoko erakunde autonomoak arautzen dituzten xedapenek nahiz horiek garatzen dituzten arauak gidatuko dute agintaritza.
 4. Halaber, **objektibotasunez**, profesionaltasunez, ordenamendu juridikoaren mende, eta administrazio publiko eta eragile ekonomikoekiko **inongo loturarik gabe** beteko ditu bere eginkizunak, helburuak lortzeko.
 5. Ekonomia politikaren eta lehiaren defentsaren **ardura duen sailak** parte hartuko du Lehiaren Euskal Agintaritzaren gidalerroak ezartzeko lanean, eta gidalerrook agintaritzaren urteko jarduera programan jasoko dira.

- **LEA sortu denetik bost urte** igaro direnean, estrategia hausnarketa garatu nahi izan da, eta horixe bera da lehen plan estrategikoa.
- Plan hau lantzeko **arrazoi nagusiak** honakoak izan dira:
 - Estrategiaren hausnarketa eta plangintza egiteko nahia, erakundeari zuzendaritza izaera emateko eta **erakundea sendotzeko eta indartzeko**.
 - **Estrategia kudeaketarako tresna berria** izatea, epe ertaineko lehentasunezko helburuak eta jarduketa ildoak argi eta garbi definitzeko eta LEAren jardueraren jarraipena, ebaluazioa, doikuntza eta hedapena errazteko.
- Plan estrategiko honen **epealdia 2018-2022** da.
- Plan estrategikoa lantzeko prozesuan, LEAko taldea osatzen duten **pertsona guztiek hartu dute parte**, metodologia desberdinak (elkarrizketak, lan taldeak, “emergent thinking” saioak) erabiliz.



LEAren HELBURU EDO XEDEA

“Merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez. Eta helburu hori lortzeko honako eskumenak izango ditu: zehatzekoa, sustatzekoa, aurkatzekoa, ebazpenak ematekoa, kontsultakoa eta arbitrajekoa”.

ETORKIZUNeko IKUSKERA EDO HELBURUA

Plan horren arabera, LEAren izaera hauxe izan behar da: “erakunde errespetatua eta erabilgarritasun, zorroztasun, proaktibitate, gardentasun eta independentziagatik ezaguna, EAEn lehia defendatu eta sustatzen duelako, merkaturia ireki eta lehiakorragoa izan dadin”.

1.- Erakundea sendotu eta ikustaraztea

LEAren aburuz, **erakundea sendotu eta hazi** behar da, EAEko jendartean eta erakunde sisteman erakundearen sinesgarritasuna eta erabilgarritasuna handituz eta une oro izen eta irudi ona babestuz.

Halaber, EAEko **jendartearekiko komunikazio bideak eta lehiaren bestelako erakundeekiko eta lotutako erakundeekiko**, eragile instituzional garrantzitsuekiko lankidetzak tresnak aktibatuz behar dira, jarduera hobeto gauza dezan.

2.- Lehia aldezteak merkatuetan

Helburua den heinean, LEAk funtzioak bete nahi ditu EAEko merkatuetan lehia murrizten duten jardueretatik babesteko, **independentzia, zuhertasun eta zorroztasun printzipioetatik**.

Horretarako, eta **merkatu eta jarduera horiek gero eta konplexuagoak direnez**, egokia da zaintza proaktiboa indartzea, eta zehapen prozedura benetan aplikatzea, legeak eskaintzen dituen funtzioen eta tresnen bidez.

4.- Operazio bikaintasuna lortzea

LEAk **kudeaketa eredu aurreratua era berritzailea** garatu nahi du, eguneroko jarduera hobetzeko eta eskuragai dauden prozesu eta tresnak hobetzeko.

Era berean, etorkizuneko proiektuaren oinarri gisa, LEAk **profesionalen taldean ezagutza eta espezializazioan eta talde lanean oinarritutako antolakuntza** ereduaren alde egiten du.

3.- Lehiaren sustapena (“Advocacy”) bultzatzea.

LEAk sustapen funtzioa (Advocacy) indartu nahi du, **tresna ez zehatzaileen eta eragile preskriptoreekiko lankidetzaren bidez**, uste baitu lehiaren kultura ez dagoela behar beste zabaldua gure jendartean eta merkatuetan.

Sustapen horren **helburu diren merkatuak eta eremuak asko direnez**, merkatuak hobetu ezagutu behar dira, arau zaintza hobea izan behar da eta aholkularitza organoaren rola indartu behar da, sustapen ekintza eta bideak proaktiboki aktibatzeaz gain.


<i>Estrategia Helburua (EH)</i>	<i>Jarduteko Estrategia Ildoak (EI)</i>
1EH. Erakundea sendotu eta ikustaraztea	1.1 EI Erakundearen ikusgarritasuna eta sinesgarritasuna 1.2 EI Lotutako lehiaren aginteekin eta erakundeekin kolaboratzea
2EH. Lehia aldezte merkatuetan.	2.1 EI Merkatuen zaintza proaktiboa 2.2 EI Zehapen prozedura benetan aplikatzea
3EH. Lehiaren sustapena bultzatzea	3.1 EI Merkatuaren ezagutza sakontzea 3.2 EI Lehiaren kultura sustatzea 3.3 EI Zaintza eta sustapena arau eremuan 3.4 EI Aholkularitza organo gisa jardutea
4EH. Operazio bikaintasuna lortzea.	4.1 EI Teknikari taldea profesionalizatzea eta espezializatzea. 4.2 EI Kudeaketa aurreratu eta berritzailea.

Helburu estrategikoa

Estrategia ildoak

Lehentasunezko ekintzak

1EH. Erakundea sendotu eta ikustaraztea



Komunikabideekiko lankidetza lerroa definitzea, LEAri eta haren jarduerari buruzko egiazko informazio ulergarria bermatzeko.

Nazio eta nazioarteko kongresu eta eztabaidagune espezializatuetan (Europako Batzordea, ELGA, ICN, UNCTAD) egotea.

Eusko Legebiltzarrarekiko harremanak indartzea.

Herritarrenganako informazioaren gardentasuna eta irisgarritasuna hobetzea (adibidez, webgunea).

Lehiaren Defentsarako Estatuko Jardunaldiak antolatzea, LEA sortu zenetik 10 urte igaro direla-eta.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarekiko lan instituzional bateratua, erakundeon arteko sinergiak aprobetxatzeko.

Autonomia erkidegoetako lehia agintarien sarearekiko lankidetza

EAEko lotutako edo hurbileko organismoekiko (KontsumoBIDE, KEAO, Arartekoa eta abar) lankidetza.

Helburu estrategikoa

Estrategia ildoak

Lehentasunez ko ekintzak

2EH. Lehia aldeztea merkatuetan

1

**MERKATUEN
ZAINZA
PROAKTIBOA**

2

**ZEHATZEKO
PROZEDURA
BENETAN
APLIKATZEA**

EAEko merkatuen eta ekonomia eta enpresa sarearen gaineko ezagutza hurbildu eta indartzea: ekonomia eta enpresa eragileak, enpresan parte hartzeko egituretan aldaketak, nazioartekotzearen ondoreak...

EAEn kolusioaren eragin handiena izan dezaketen merkatuak edo eremuak identifikatzea, horiek aztertu, eta hala badagokio, ikertzeko.

Informazioa ezagutza bihurtzeko zaintza metodoak hobetzea, merkatuen defentsan, bereziki big data eta open data erabiltzea bereziki kontuan izanda.

Merkatuko lehiaren kontrako jarrerak aztertzea, eurei dagokienez jarduteko; noiz eta EAetik kanpo zelanbaiteko eragina eduki arren, EAEko merkatuan ere eragina dutenean, LEAren eskumenak bermatze aldera.

Aldez aurretiko ekonomia azterlan judiziala bultzatzea (nazioarteko praktika eta praktika akademiko hobeak abiapuntu).

Legearen arabera eskuragai dauden funtzio eta tresna guztiak (errukitze programa, adostutako amaierak, arbitrajeak, bestelako zehapen eta debekuak) aplikatzea

Bermea, iragartzeko gaitasuna eta segurtasun juridikoa indartzea LEAren jarduera guztietan.


Ebazpenak benetan betetzen direla egiaztatzea

Helburu estrategikoa

3EH. Lehiaren sustapena (“Advocacy”) bultzatzea

Estrategia ildoak

Lehentasunezko ekintzak



EAEko ekonomiarako lehentasunezko sektoreak identifikatzea, merkatuan akatsak eduki ditzaketenean, azterlan juridiko-ekonomikoa egiteko.

Lehentasunezko sektoreei (erasandako populazioa kontuan izanda, sektore estrategikoak, gizartean duen eragina aintzat harturik, erasandako enpresa kopurua, espero den onuraren eragina eta abar) **buruzko ikerkuntza azterlan, txosten eta lanak programatu eta lantzea.**

Sektore publiko eta pribaturako gida praktikoak egitea.

Zabalkuntza mailako jarduerak (ikastaroak, mintegiak, bekak, jendaurreko kontsultak, pizgarri programak eta abar) **programatzea**

Sektore publikoari, zehatz-mehatz, **administrazioetako kontratazio organoei begirako ekintzak antolatzea.**

Jurisdikzio organoekiko lankidetzaren (amicus curiae).

Ekonomia eragileekiko harremanak

Compliance politikak zabaltzea lehiaren esparruan **enpresa pribatuaren** esparruan.

Unibertsitateekin lankidetzaren aritzea: bekak, mintegietan parte hartzea eta lehiaren inguruko ikerkuntza lanen deialdia.

Arauen jarraipena egitea, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek landutako araudia aurreikusi eta egokitzeko.

Lehiaren aurkako arauak **aurkaratzeko tresna erabiltzea, denon onerako.**

LEAk zenbait erakunderi egindako aholkularitzaren eskaintza proaktiboa, aholkularitza organoa baita, zertarako eta LEAri egindako kontsultaren sistematizazioa lortzeko, eragile eta erakundeen ((Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, batzar nagusiak, foru aldundiak, udalak, elkarte profesionalak, merkataritza ganberak eta enpresaburuen, sindikatuen, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak) lan prozesuen zati legez.

*Helburu
estrategikoa*

*Estrategia
ildoak*

*Lehentasunez
ko ekintzak*

4EH. Operazio bikaintasuna lortzea

1

**TEKNIKARI TALDEA
PROFESIONALIZATZEA
ETA ESPEZIALIZATZEA**

Ezagutzaren kudeaketa: konpartitzeko beharreko gaitasunak garatzea eta kideen artean ezagutza erabiltzea.

Etengabe egokitzea la LEAren eta berorren langileen funtzioak eta eskumenak.

Talde lana dinamizatzea .

2

Kudeaketa aurreratu eta berritzailea.

IKT tresnak eta sistemak berriz aztertu eta hobetzea.

Praktika berritzaileen zabalkundea sustatzeko kudeaketa prozesuak eta tresnak hobetzea.

- Estrategia Plan honetan definitutako estrategia ildoak eta ekintzak abian jartzeko eta koordinatzeko honako **gobernantza tresnak** behar dira:

1. Plana betearazteko jarraipen, ebaluazio eta doikuntza organoak

- Lehiaren Euskal Kontseilua:** Estrategia Plana 2018-2022, plana betetzen den egiaztatzeko urteko txostenak eta haren aldaketak onarzten ditu.
- Presidentzia:** Plana jendaurrean aurkeztea eta LEAren jarduerari eta planaren betepen mailari buruzko kontuak aldian-aldian ematea.
- LEAren Zuzendaritza Batzordea:** plana betetzene den aldian-aldian egiaztatzea.

2. Adierazle panela Planaren estrategia ildo bakoitzean planifikatutako ekintzak bete diren ebaluatzeko beharrezko adierazleak batzen dira.

Objetivo Estratégico (OE)	Líneas Estratégicas de Actuación (LE)	Acciones prioritarias	Indicadores	Meta (objetivo) / ejecución (real)					
				2018	2019	2020	2021	2022	Total
OE1. Conocer y regular la institución	LE 1.1. Visibilidad y credibilidad institucional	Colaboración con medios de comunicación.	3º apariciones						
		Presencia en congresos y foros especializados a nivel internacional.	3º congresos y foros						
		Participación en congresos y foros especializados a nivel internacional.	3º congresos y foros						
	LE 1.2. Colaboración con autoridades de la competencia a nivel internacional	Refuerzo de la relación con el Parlamento Vasco.	3º compromisos						
Organización de jornadas. Noticias de Defensa de la Competencia (3º sem.)		% contenido accesible							
OE2. Defender la competencia en los mercados	LE 2.1. Vigilancia proactiva de mercados	Trabajo institucional conjunto con CNMC.	3º acciones						
		Colaboración con la red de autoridades administrativas.	3º acciones						
	LE 2.2. Vigilancia efectiva de procedimientos sancionadores	Colaboración con organismos asesores (Bancoas@DE, GARC, Ararabiz, etc.)	3º acciones						
		Asesoramiento y refuerzo del conocimiento de mercados y medio económico y empresarial. Foros, agencias, seminarios y programas, también en las estructuras de participación de empresas, efectos de la internacionalización...	3º de análisis						
OE3. Defender la competencia en los mercados	LE 2.1. Vigilancia proactiva de mercados	Identificación de mercados y sectores en la CAE que pudieran ser más sensibles a la relación para su estudio y, en su caso, intervención.	3º mercados y sectores						
		Sustitución de "textos" y medidas de vigilancia para transformar la información en conocimiento, en defensa de los mercados, con especial atención al uso de big data y open data.	3º mercados (pares)						
	LE 2.2. Vigilancia efectiva de procedimientos sancionadores	Análisis de la vulnerabilidad del mercado de la CAE de los comportamientos antisociales que afectan a otros mercados, con el fin de garantizar la defensa de los intereses de la CAE.	3º comportamientos (otros mercados) analizados						
		Fortalecimiento del análisis previo / estudio diagnóstico de carácter económico y jurídico (a partir del uso de mejores prácticas internacionales y académicas)	3º mejores prácticas aplicadas						
OE4. Defender la competencia en los mercados	LE 2.1. Vigilancia proactiva de mercados	Aplicación de todas las funciones y herramientas disponibles por Ley.	3º herramientas aplicadas						
		Refuerzo de la gestión, predictibilidad y seguridad jurídica en todas las actuaciones.	3º acciones						
	LE 2.2. Vigilancia efectiva de procedimientos sancionadores	Vigilancia del cumplimiento de las resoluciones.	% resoluciones vigiladas						
		Aplicación de todas las funciones y herramientas disponibles por Ley.	3º herramientas aplicadas						
OE5. Defender la competencia en los mercados	LE 2.1. Vigilancia proactiva de mercados	Refuerzo de la gestión, predictibilidad y seguridad jurídica en todas las actuaciones.	3º acciones						
		Vigilancia del cumplimiento de las resoluciones.	% resoluciones vigiladas						
	LE 2.2. Vigilancia efectiva de procedimientos sancionadores	Aplicación de todas las funciones y herramientas disponibles por Ley.	3º herramientas aplicadas						
		Refuerzo de la gestión, predictibilidad y seguridad jurídica en todas las actuaciones.	3º acciones						



Lehiaren Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca de la Competencia

Estrategia Plana 2018-2022